



**SOZIOLINGUISTIKA
KLUSTERRA**

Euskara biziberritzeko
ikergunea

Soziolinguistika albistaria

107. zenbakia

2021eko irailak 23 – urriak 7

Soziolinguistika Klusterreko albisteak

GORDE DATA: migrazioei eta harrera linguistikoari buruzko Euskal Soziolinguistika Jardunaldia azaroaren 11n Iruñean.

Ez da berria gure artean immigrazioaren fenomeno. Labur esatearren, XX. mendearen hasieratik, eskualdearen arabera ezaugarri desberdinekin, gizarteko egitura demografikoan aldaketa sakonak eragin ditu euskararen lurraldean. Milurtekoaren aldaketarekin, alabaina, Espainiako eta Frantziako estatuetatik kanpo jatorria duen immigrazioa nabarmenki handitzen ari da, eta adierazle guztiek erakusten dute bizi dugun COVID19 osasun-krisia behin gaindituz gero, are eta gehiago haziko dela.

Mertxe Mugika izendatu dute Soziolinguistika Klusterreko lehendakari

[BERRIA] AEK-ko Mertxe Mugika izendatu dute Soziolinguistika Klusterreko lehendakari, bazkideen artean egiten duten txandakako sistemari jarraikiz. Printzipioz, datozen bi urteetarako hartu du kargua Mugikak, orain arte lan horretan aritu den Eusko Ikaskuntzako Mikel Irizarren tokia hartuz.

Quebec-eko Laurence Alain ikerlaria barne-mintegian

Laurence Alain, Laval Unibertsitateko antropologo quebecarra, Martin Ugalde Kultur Parkean izan da, Soziolinguistika Klusterraren Bulego Teknikoko kideei bere ikerketa-ibilbidearen inguruko eta Quebec-eko hizkuntza egoeraren berri ematen.

Zuzendari Nagusi bila ari dira BADALABen

Pertsona honi partzuergoaren administrazioa eta zuzendaritza exekutiboa dagozkio, baita funtzionamendu operatiboaren erantzukizuna eta jardun-arloen eta langileen zuzendaritza ere, Gobernu Batzordearen eta Batzorde Betearazlearen jarraibideen arabera jardunez.

Euskararako bidea errazten

[Gipuzkoako Hitza] Ikastea zaila denaren ustea edo mitoa dauka euskarak bere gain. Uste horri buelta eman nahian sortu du pedagogia berri bat Pello Jauregi EHU irakasle eta Soziolinguistika Klusterreko kideak. Euskararen ahozko ulermena lantzeko pedagogia berria martxan jarriko dute bederatzi herritan eta 60 ordutan A1 mailako ulermena lor daitekeen probatu nahi dute.

—

Ikerketak

Herritarren laurdenek baino gutxiagok nabigatzen dute sarean euskaraz Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan

[BERRIA] Gero eta herritar gehiagok erabiltzen dute Internet. Izan gainerakoekin komunikatzeko, informazioa bilatzeko edo bestelako edukiak kontsumitzeko. Azken urteotako joerak egonkortzen ari direla erakusten du Eustat Euskal Estatistika Erakundeak berriki argitaratutako datuek eta euskararen erabilerak zokoratuta jarraitzen du.

Humanitate digitalen inguruko euskarazko ikerketa sustatzeko 3. deialdia abian da

[UEU] Abian da Humanitate digitalen inguruko euskarazko ikerketa sustatzea eta euskarazko datu libreen sorkuntza, elkartrukea eta zabalpena bultzatzea helburu duen ikerketa deialdia. UEUK antolatu du Euskal Wikipediako Kultur Elkartearen (EWKE) laguntzarekin eta 5.000€-ko 2 diru-poltsa banatuko dira.

—

Jardunaldi, hitzaldi eta ikastaroak

'Molac legeak' ekarri dituen ondorioak aztertuko dira urriaren 22an izanen den jardunaldian

[Euskaltzaindia] Euskal Konfederazioak eta Euskaltzaindiak egun osoko mintegia antolatu dute elkarlanean, lege honen aurrekariak, oinarriak eta ondorengoak hizpide hartuta. Jardunaldia urriaren 22an izanen da, Baionako Herriko Etxean eta izen-ematea urriaren 20ra arte izango da zabalik.

Euskararen aldeko jarrerak indartzeko gogoetak partekatuko dituzte Iruñean

[NAIZ] 'Nafarroan euskararen aldeko jarrerak indartzeko aukerak' jardunaldiak antolatu ditu Euskaltzaleen Topaguneak urriaren 14rako. Kondestable jauregian, «Nafarroan gero eta herritar gehiago euskararen indarberritze prozesuarekiko enpatiko izateko diskurtsoaz hausnartzeko.

Hezi-Ola: eskola, kultura, aisia eta euskara elkarri begira

[UEU] Hezi-Ola: eskola, kultura, aisia eta euskara ikastaroa Gasteizko Udalak antolatu du Gasteizko Berritzegunea, Oihaneder Euskararen Etxea eta UEUrekin elkarlanean. Euskarari eta euskal kulturari buruz ari garela, zer jakin behar du Gasteizko gazte batek derrigorrezko hezkuntza amaitzen duenean? Galdera horri erantzuten saiatuko gara ikastaro honetan. Izena ematea zabalik dago.

"Youth Engagement in Minority and Regional Languages" kongresu birtuala

[UCD Dublin] Join us virtually in 2022 when our research team will organise an international conference on the relationship between youth and minority and regional European languages. The conference will be hosted by the UCD School of Irish, Celtic Studies and Folklore.

—

Liburuak eta artikulu zientifikoak

Kalean da "Euskara oinarri eta eleaniztasuna helburu. Hizkuntzen garapena eta erabilera aztergai" liburua

[ELEBILAB Ikerketa Taldea] Liburu hau ikerketa askoren lagin bilduma da, modu batera edo bestera Itziar Idiazabalen ibilbide akademiko eta ikertzaile luzean gurutzatutako adituek egin. Ibilbide hori irudikatzen duten hamalau lan lau ataletan bildu dira: eleaniztunen jabekuntza-prozesua, euskara ardatz duen hizkuntzen ingeniarietza didaktikoa, irakasleen prestakuntza eta hizkuntza-kooperazioa.

Language Revitalisation and Social Transformation

[Springer] This book, edited by Wilson McLeod and Huw Lewis advances a new agenda for academic and policy debates concerning language revitalisation. Also, provides the first systematic analysis of the implications of social, economic and political change on regional and minority languages. Finally, brings together a group of prominent researchers to reassess and reconceptualise language revitalisation in a fast-changing world.

How we talk about language : exploring citizen sociolinguistics

[HABE Liburutegia] An essential new aid to the study of the relationship between language, culture and society, this book provides the intellectual and practical tools we need to analyse how people talk about language, how we can participate in those conversations, and what we can learn from them about both language and our society.

The legal recognition of sign languages : advocacy and outcomes around the world

[HABE Liburutegia] This book presents the first ever comprehensive overview of national laws recognising sign languages, the impacts they have and the advocacy campaigns which led to their creation. It comprises 18 studies from communities across Europe, the US, South America, Asia and New Zealand.

Dokumenturen bat edo informazio bibliografiko gehiago nahi izanez gero, jo zuzenean HABE Liburutegira (liburutegi@habe.eus), beraiek arduratuko baitira zure eskaria bideratzen.

Bestelako albisteak

HABEk eta Gipuzkoako Foru Aldundiak B2 mailara bitarteko ikasketak doan izateko hitzarmena berretsi dute

[Eusko Jaurlaritza] Gaurko Gobernu Kontseiluak onartu du HABE- Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundearen eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren arteko hitzarmena. Akordioaren arabera Gipuzkoan helduen euskalduntzean B2 mailara bitarteko ikasketak doan prozesua doakoa izango da.

Eusko Jaurlaritzak hizkuntzen kudeaketa aurreraturako estrategiak landu ditu enpresentzat antolatutako prestakuntza-topaketa baten

[Eusko Jaurlaritza] Kultura eta Hizkuntza politika sailak antolatuta "Kudeaketa Aurreratua eta Hizkuntzen Kudeaketa. Integraziorako gida" Euskalit Fundazioarekin elkarlanean landutakoa da, eta bertan, Kudeaketa Aurreratuaren ikuspegitik hizkuntzen kudeaketarako garrantzitsuak diren alderdiak enpresaren kudeaketa sisteman integratzeko bidea azaltzen da.

Hizkuntz politikaz eta glotopolitikaz aritzeko Txillardegi Gogoeta Gunea jarri dute abian

[NAIZ] «XXI menderako hizkuntza politika eztabaidatu eta ahal bada ondorio nagusi batzuk ateratzeko gogoeta gunea» da Telesforo Monzon Euskal Herrigintza Laborategitik eratzera doan Txillardegi Gogoeta Gunea. Urtea amaitu aurretik lehen mintegia egingen dute, demografia eta migrazioa oinarri, 15 urtera aurki daitezkeen agertoki posibleak irudikatzea helburu.

European Day of Languages 2021, an occasion to claim greater support for RMLs

[NPLD] On the occasion of the European Day of Languages (26th September), the NPLD and the Delegation of the Government of Catalonia in Brussels organised a Networking Breakfast that gathered around 30 representatives of European regional governments and International organisations working in the field of linguistic diversity from Brussels.



SOZIOLINGUISTIKA
KLUSTERRA

Euskara biziberritzeko
ikergunea

Babeslea:



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Bazkide partaidea:

emun[®]
Euskara eta
berrikuntza soziala